

EUSKALDUNBARRI IZATEA

Gaiari jarraitzen, euskeraz ikasi eta ondo erabiltzea erreza ez dala esan dagikegu baña ez bere zailtasunagaitik gure nagikeriagaitik baño.

— Euskeraren ikasketa ikasleentzat, edozein gudaren garaipena lez izan bear da eta mailarik-maila irabastea lortu bear dogu euskaldunbarriok. Guda baten bezela gogorra da borroka eta gure indarra eta alegiñak atara bear doguz, baña maila bakoitza amaitzean, eta lortu doguna aztertzean, gure belarrietara eltzen dana ulertzen badogu eta erantzun aal badogu, gozotasunak eta atsegiñak betetzen gaitue.

— Ikusi dogun lez gudari bereziak gara euskeraz ikasten gabiltzanok eta gudari izan ezkerok, gogor jo eta ke emon bear datsoguz idazteei eta itz-egiteari. Naiz eta bildur izan, naiz eta lotza izan, danok burrukarik politenean gabiltzala pentsatu bear dogu -ta lortuko dogula odolik eta lergailurik jaurti barik.

— Zer lortuko dogun ez dakizuela? Auxe da; Gure nortasuna, askatasuna, eta batasuna batez be, orrez gañera, euskalerriaren jakintza ezagutzea, burujabetasuna zer dan ondo ulertzeko.

“Baña nik (esango dau batek) urte asko daroat euskeraz ikasten eta itz-egitea ondiño ez dot lortu, naiz eta geure izkuntza maitatzen.”

Zure semea be, maite dozu baña ez maite bakarrik, zure lana, alegiñak, loaldiak eta indarra be eskeintzen dautsozuz. Ugari dira euskera asko maite dabela esaten dabenak, baña “agur”, “egunon” edo “eskarrikasko” baño ez dabe ikasi, eroso bizi gura dabelako. Orreik ez dabe euskera benetan maite, biotzez maite dauanak jardun eta jardun jarraitzen dau denborari jaramonik ez egiten.

Geure izkuntzarengan sartzeko eta sustraietara sartzeko ez dago urterik eta il arte ikasi dagikegu.

BIOTZ-JAUBEA

Mendi aldapean, pagadi azpean
lañoz eztalduta, basetxe zarra;
arpegi alaia, barriz zurituta,
zugatzak lorean, bere inguruan.

Itxasoko orruak, araño eltzen dira;
izontzi-gizonen oldospen, ametsak
eta itxaropenak, duaz eurekaz.

¿Zer dauko etxe orrek
euzko baster baten eskutatua,
gizonen biotza betetako osoro,
munduko anditasun danak, aitzuta?

* * *

Uri andiko kaian, orain lotu dira.
Delako benetan ikusgarria,
danak lurreratu, ikustiarren ba;
bera da bakarrik itxasontzian.

Ezpeitik gabe, ango atsegiñetan
biar-sari danak, banatuko dabez
bere lagunak.

Paper-zorroitik atara ta gero,
beitu banan-banan argizkitxuak.
¿Zein da ume zoli, argia, potolo,
andra gazte baten belaubietan,
begiak dizditsu, aboan irria,
maitekiro ikusten? Bere semia.

UTARSUS

BIZKAIERARI

Denborari eskatzen dautsat
ain arin ez joateko,
urteak ariñegi doaz
ta nik lan egin bear dot.

Menperatu nabe lanak,
sendiak eta lagun,
eta zuretzat astia
beti ikusten dot urrun.

Ezerk ez nau ni alaitzen
artu zindudanetik,
nire astia zuri emon
gura dot nik bakarrik.

Ederrena zeu zarala
diñot lekuetatik,
maitemindurik nagola
esaten dauste niri.

PALMIK